

berria

2003ko EKAINA,
112. ZENB. DOHAINIK

UDA BELTZA

Galipotaren amesgaiztoa
berriro gure artean.

Egunkari BERRIA
kalean



H

auxe duzu uda garaiko aurreneko Baleike. Betikoa errepikatzeagatik denetik aurkituko duzula esango dizugu. Beti bezala.

Ze berri? Zaharrak berri!! Galipota zikin

hori berriz ere iritsi zaigula gure hondartzetara. Hala ere, Zumaiari bandera urdina eman diote. Hori Europako ez dakigu zeinek. Harrigarria!! Ekologistek ere eman diote bandera gure herriari. Bandera beltza.



Bandera kontuan, behintzat, nagusi gara. Baten faltan bi!! Bandera kontuetan asko dakiena izango da Rikardo Peña alkate ohia. Berarekin aritu gara *jardunian*. Kirol portua, etxebizitzak, kultura... eta beste hainbat gauza jorratu ditugu berarekin.



Ura zikin samarra badago ere, *ur haunditan* sartu gara. Gipuzkoako metalgintzan zalaparta da nagusi azkenaldian. Gure herriko enpresetan iskanbila horrek izan duen eragina ezagutu nahi baduzu uretan sartu-irte-
na egin beharko duzu.

Olarro zopan bertsoak nagusi, eta bertsoetan zumaiarrak. Gipuzkoako eta Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketetan punta-puntan ibili dira gure bertsolari gazteak. Bejondeiela!!

Uda garaian surfa jende askok egiten duen kirola da. *Izerdi patsetan* zaude-la, Zumaiako Surfeko taldea ezagutzeko aukera izango duzu.



Hondartza irakurtzeko leku aproposa da. *Ze letua* izaten da hondar artean. Nahi baduzu ipuin labur dotorea irakur dezakezu.

Bukatzeko, *tientuan* ibili!! Sanpedruak hemen dira eta argi!! Rupe-
rrek dioen bezala, gutxi gastatu eta bueltak amari. Eta Baleike irakurri!! Merke askoa da eta!!



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri

Diseinua eta maketazioa
Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa
Baleike

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale
Lege gordailua
SS-405/94
ISSN
1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Baleike ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioak laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

ZUMAIAKO HERRIARI

ITZIAR ARRIZABALAGAK bere konde-naren 3/4ak bete zituela-eta, Plataforma honek egindako azken lana egin nahi dugu. Sinadura bilketa egin ondoren guz-tiarekin udalera joan ginen alkateari gai honi buruzko pleno bat antola zezan eska-tzeko. Gure eskaera hauxe zen: udalak gurekin harremanetan egongo den komi-sio bat eratzea Itziarren askatasunaren aldeko dokumentazioak, eskaerak eta aba-rrak, udaletik Eusko Jaurlaritzara eta Madrilerara bideratzeko. Pleno hori apiril-a-ren 10ean egin zen, eta alkateak giza esku-bideen komisioa soilik sortzeko egitasmoa azaldu zuenean, hau da, Itziarren kasua aipatu gabe, guk komisio horren aurka ez genuela ezer, eta horren barruan, gutxie-nez, pertsona bat gurekin harremanetan egon zedila eskatu genion, Itziarren kasua bereziki aurrera eramateko. Eskaria hori guztien adostasunarekin onartu zen.

Denok ondo dakigu Espainiako Gobernua beraien legedia betetzeko ere prest ez dagoela. Aski dugu AuBren,

Udalbiltzaren, Euskaldunon Egunkariaren, Ikastolen Federazioaren edo Jakin aldizka-riaren aurkako erasoak ikustea, frankokume hauek norantz joko duten jakiteko. Hala eta guztiz ere, gutxienez, eztenkadak egiten dituen erlea izan nahi genuke, jende horri ez gaudela konforme esateko, gurean etsi gabe jarraituko dugula adierazteko, alegia.

Plataforma honek, bestalde, herriaren aurrean ahalik eta gardenen jokatu nahi du, eta azken agirian azaldu bezala, banan bana eskerrak eman nahi dizkiegu euren atxikimendua agertutako guztiei:

- ALDERDI POLITIKOEI: EAJ-PNV, EA eta Sozialista Abertzaleak.
- SINDIKATUEI: ELA, LAB,CCOO, eta ESK.
- ERAKUNDEEI: Elkarri, San Pedro Apostolua Parrokia, Zumaiaiko Institutua, Zumaiaiko Dendari Elkartea, Ostarrena Zine-Kluba.
- KIROL ETA GASTRONOMI ELKAR-TEEI: Indamendi Elkartea eta Indamendi M.B., Aita Mari Arraun Elkartea eta Aita

Itziarren Askatasunaren Aldeko Plataforma

Mari Elkartea, Inpernupe Elkartea eta Inpernupe Kultur Elkartea.

- ENPRESEEI: Izargi Bidaia, Kirol Portuko Jatetxea, Errota, Zelai Azpi, SL, Mecanizados de Precision Zumaia, Industrias Gair, Lagun Arte, Mendiaraiz.
- HORIETAZ GAIN, 568 herritarren atxiki-mendua sinatu zuten guztiei.

Ikus dezakezue, Zumaiaiko gehiengo batek Itziarren askatasunaren aldeko jarrera garbia agertu dugu. Hala eta guztiz ere, azaldu nahi genuke baita ere, zenbait era-kunderen eta elkarteren jarrera ukakorra. Batzuek gizarte eskubide soila dena asmo ilunekin nahastuz, eta besteek izen ona ez galtzeko aitzakia jarri sinadura ukatzeko. Horiei eskatuko genieke begira dezatela atxikimendua eman dutenen zerrenda, eta ea horiek denak asmo ilunekin dabil-tzan, edo izen ona galdu duten.

Berriro ere, mila esker aldeko jarrera ager-tutako herritar denei. Udaletxeko komisioa-rekin harremanetan jarri eta zerbait egiten hasi bezain laster berriak emango ditugu.

TELEFONO LISTINA

BI MINUTUKO ariketatxo bat proposa-tzera natorkizu, zumaia jator hori. Har ezazu udalak urtero argitaratzen digun Zumaiaiko telefono listina eta has zaitez gure abizenei begira. Hor ikusiko dituzu alfabeto ordenan bata bestearen ondoren. Erdarazkoak zuzen eta seguru aurkituko dituzu, bakoitza bere lekuan, baina kontuz euskaldunon abizenekin. Aguirre ikusiko dituzu batzuk, Agirre beste batzuk, Alcor-ta izenekoen zerrendan ez dituzu denak aurkituko, atzeraxeago baidatoz Alkorta idatzitakoak. Berdin gertatuko zaizu Azcue eta Azkuerekin, Cendoyatik oso urruti datoz Zendoiak. Hau nahastea! Etxabetarrak hiru lekutan bilatu beharko dituzu, 5 Echabe, 47 Echave eta azkenik 30 Etxabe. Harrapa ezak hori!

Eta aurrera jarrai dezakezu jolasean ea non topatzen dituzun. Atxurra, Lazkano, Lopategi, Manzisidor, Mujika, Sarasketa, Yeregi edo Zulaikatarak. Denetik dauka-zu aukera hemen, Goikoetxea nahiz Goi-coetxea, nahiz Goicoetxea eta ez dakit

Goikoechearik ote dagoen. Zer nahi duzu gehiago?

Denok dakigu erdaraz ikasi behar izan genuela halabeharrez garai batean esko-lan, erdal ortografian idaztea zela zuzena, Lotsagarria zen benetan Aranburu nahiz Aranberri idaztea, b aurretik m idatzi behar baitzuen zerbait zekienak behin-tzat. Geroztik euskaldun asko saiatu gara gure hizkuntzan alfabetatzen eta geure izen abizenak euskal ortografian idazten, eta asko kostata dokumentu ofizialetan ere hala agertzea lortu dugu zenbaitek. Baina bestalde, ikusten dugunez, hutsune han-diak ditugu arlo honetan.

Galde daiteke bada 2003an ez ote den iritsi garaia euskaldunok geure hizkuntzan Euskaltzaindiak erakusten digun eran idatz ditzagun geure izen-abizenak? Zei-nen errua ote da gaur oraindik horrelako listinak eskuetan erabiltzearena? Noiz arraio hasi behar ote dugu erabat euskal-dun izaten?

Erdaldunek garbi dauzkate ortografia

arauak eta mundu guztiak badaki derrigo-rrez nola idatzi behar duen berea. Gure kasuan ere Francoren diktadura aspaldi bukatu zen, eta badugu garaia haren kalte-ak konpontzeko. Ez al zaizue iruditzen? Berrogeita hamar urte daramate ia ikastolek lanean. Aspaldi eman zizkigun Euskal-tzaindiak euskaraz nola idatzi arau zeha-tzak. Zein pauso eman behar ditugu orain anarkia hau konpontzeko? Denok banan-banan aldatu zain egon behar badugu, uste dut hemendik hogeit urtera ere listin ber-dintsua iritsiko zaigula udaletxetik. Gauza hauek ezin dira utzi nor beraren esku. Bere buruan jabe diren herrialde guztietan ordenak goitik zehatz emanak daude arlo honetan zer eta nola egin.

Ea 2004 urteko telefono listinean erra-zago topatzen ditugun 82 Etxabe abizenak bata bestearen atzetik toki berean. Guz-tzen baimenarekin eta udaleko kultur batzordeak zuzendurik urrats bat aurrera emango genuke gure hizkuntza bide baz-terrean zimel ez dadin.

J. Dorronsoro

Bidegi, jaioberri tiranoa

Azkenean, hainbeste urte pasa eta gero autopistaren kontzesio ditxozkoari ere bukaera etorri zaio. Bukaera?

Baten batek komentzitzeko modu batez esplik diezaguke autopistaren erabiltzaileok betiko ordaindu beharraren arrazoia?

Ez dut defendatu nahi bide bikoitzeko errepideak, edo zabalagoak, ordaindu behar ez liratekeenik.

Printzipioz, ordaintzen ditugun zerga orokorrak administrazioak ematen dizkigun zerbitzuentzat direla ulertzen dut, hala nola osasun zerbitzuak, hezkuntza sitema... eta komunikabideak ere. Zerbitzu oinarritzko horiezaz gain ezer bereziagoa edo hobeia nahi duenak aparte ordaindu behar izateari ez deritzot gaizki, baldin eta berdintasunez jokutzen bada. Izan ere, nik dakidala, zergak ordaintzeko irizpideek denontzat berdinak izan behar dute, gizartearen kohesioak eragindako salbuespenak salbuespen. Zergatik, orduan, Gipuzkoan dauden mota horretako beste errepide guztiak ez dira ordaindu behar eta gurea bai? Trataera desberdina izatekotan ez ote litzateke alderantziz izan behar? A-8 autobia izan beharko lukeena, erabiltzaileok dagoneko geure patrikatik ordaindu dugu, eta beste autobiak denon zergetatik. Francoren garaiko egoera injustu eta diskriminatorio hau noiz bukatzeko zain geundela, prezioak oraingoz erdira jaitsiko dituztelako kontuarekin engainatu gaituzte. Gainera mehatxupean gaude: erabiltzaile gehiegi badago, prezioak igo egingo dira (Zein instituzio demokratikoren jokabidea da hori?). Zenbat denbora pasatuko da aurreneko igoera bitartean?



Josefran Ispizua

Prentsan irakurrita, badirudi A-8aren erabiltzaileok errepide hau modu berezi batean ordaindu eta gero, Gipuzkoan egingai diren beste errepide guztiak modu berezi berean ordaindu behar ditugula (?). Prezioaren (eta bere igoera iragarriaren) arrazoia berriz, omen da bere garaian ez zutela oraingo beharretarako diseinatu, eta libre (edo merke) utziz gero, kolapsatu egingo litzatekeela (pobreen kotxeekin, nonbait!).

Balizko arazo horrek ez ote du beste irtenbide zentzuzkoagorik? Konparazio baterako imajina dezakegu toki batzuetako mediku pribatuak aparte ordaindu behar direla, eta gainontzeko tokietakoak ez, guztion zergekin ordaintzen direlako.

Pentsatu nahi dut, jakina, bestelako arrazoiak egon behar dutela eta horregatik nire galdera hau: Zergatik diskriminazio hori?

Ez jakitun jarraitzen dugun bitartean, normala den bezala, erabaki hori hartu duten Gipuzkoako instituzioekiko, zein alderdiekiko mesfidantza handituz joango da. Nire kasoan behintzat, orain arte hiritar betea sentitzeko motiboa ematen zidan gure sistema fiskal independente, eta halako erabaki diskriminatorioaren aurka ezer egin ez duten instituzioen (non dago udaletxea?) kontrako jarrera nagusituko da ezinbestean.

NOIZ ARTE?

Gorka Cabello

Azkenaldian modan jarri da usain txarra arteari dagokionez eta ez dakit kaka artea bihurtu nahi duten edota artea kaka. Batek olio frijitu zahararen usaina barreiatu zuen Donostiako Koldo Mitxelenan, besteak

belar-bola usaintsuak sartu ditu Alondegi zaharrean... Zer da kontua, probokatzea? Paristik edo ez dakit nondik datozen artista horiek zer nahi digute, adarra jo? Zorionak, orduan! Niri, egia esan, benetako sukalda-

riak eta baserritarrak artistagoak iruditzen zaizkit, eta ez dakit "benetako" artistei burla egitea ere ez den azkenaldiko joera hori. Noiz arte? (no es arte!, esango luke gure aitak) Denok kakaztu arte!



ZUZENKETA
Aurreko zenbakian, Miriam Romateten izenean apirileko zenbakian Arritxu Iribarrek idatzitako artikulua argitaratu genuen. Barkamenak irakurleei, Miriami eta Arritxuri

Bat



Estitxu Eizagirre

Zorionak Zumaiaiko bertso eskolari. A zer hiru bertsolari! Eta hiru lapa itxurako txapel ikusten diren tokian, atzean buru gehiago egongo direnaren seinale. Eutsi talde giro horri. Zeren Euskal Herrian, Egunkariarekin hasi eta AEK-ko irakasleekin bukatu, lapa lehortuen sindromea sartzen zaigu. Alegia, itsasgora datorrenean aparretan bizi garela, fresko, heze.

Orduan bai, zumaiair batek Gari kantariari idatzi zion bezala "ametsak txirlaz betetzen dizkit, arratsaldeko mareak". Arratsaldeko marea hori belaunaldiak dira, euskalgintzan. Belaunaldi indartsu batekin sortzen dira AEK-ko irakasleak, bertsolari gazteak, bertso eskoletako irakasleak, euskal prentsako kazetariak... Baina ez dugu presa egiten asmatu. Eta bajamarrarekin joaten dira olatuak, atzeraka egiten du itsasoak, eta lehortu egiten dira txirlak, lapak eta gainerakoak. Belaunaldi horretatik gutxi batzuek bakarrik jarraituko dute eguneroko lan horietan. Gaur bete-betean ari den taldea bihar inor gabe geratzeko arriskuan da. Euskalgintzako "eskolak" ez direlako nahita ere bota ezin diren unibertsitateak. Hasieratik esaten dizutelako "ez duzula horretan karrerarik aterako"! Horregatik poztu nintzen Zumaiaiko bertsolarien agurretan urte asko daramaten izenak entzun nituenean. Marea igo eta marea jaitsi, hor geratzen diren haitzak ditu Zumaiaik. Lapek zeri eutsia izan dezaten. Haitzak behar ditugu, España aldeko resaka edo tiraña ere gero eta handiagoa da eta! Zer dio hurrengo lapak?

Hiru

Gorka Ormazuri

Batek lapa esan eta besteak Laponia ulertu. Hi, Uhin, non hago? Edo, hobe esan, zer hartu duk? Dena dela, gauza batean bat natorrek hirekin: ni ere "hire izaiteaz damu" nauk.

Lapak alde batera laga eta lanperna galanta idatzi duk oraingoan, txo!

Duda diat hire "doluzko" lanperna beltzak barrua betea ala ura besterik ez duen. Iruditzen zaidak haitzari baino itsasoak dakarren ardo botilari lotuago datorrela: oso itxuroso baina sustantziaren faltan. Hiri ere haitza falta zaik, motel, zeri eutsia, existentzialismo estetiko liluragarri horretatik sendoago ateratzeko. Azken finean,



herriak bezala, pertsonak ere bere haitzak bilatu edo eraiki behar ditik bizi irauteko. Amen!

Egia dun, Estitxu, Zumaian bertsolaritzak haitz galantak dituela eta, askotan ez ikusi arren, urteroko lapa uzta ikusi besterik ez zegoen horretaz ohartzeko; baina luzera, haitz horien indarrak abiapuntu ditun gerora bakoitzak berean haitz edo harri koskor modukoak eraikitze, jarrera bati eutsi ahal izateko (mareak darabilen botilari itsatsitako lanpernak ez din aukera handirik horretan). Hori dun, hain zuzen ere, "Berria" momentu honetan behar duena, haitz sendoa: harpidetzak eta akzio salmenta.

Bi

Uhin Loiola



Ene izaiteaz damu. eta aintzineria ezin... hontaz jabetzeko ahalgeduni, dolu ankilak (bai pluralean) ba are astunago ezereza apetatzearen ondorenak.

Ezinak moitzen nain, hurrengo paretarekin kopeteko on bat hartu arte. Baña eztiñat buru huts honekin batere biguntzen. Eztola DIN formatoik miñ au dana kabitzeoik.

-Bai faborez, beste tila bat.

Le da un sorbito

-Eskerrikasko.

In ber dan o ez pentsau ber al dan?

Zoze in berko deu ba, lapa ta ostiyak.

(barka lorontziz kanpoko pixa).

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAIK HORTZ KLINIKA

Pisoleta de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente:
Rafael Iraundegi Elgoibar

Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea

Tel. 943 861523

Berriro ere galipota Itzurunen



Azken asteetan tonelada asko ekarri du itsasoak gure herriko hondartzara. Uda etorri zain egon balitz bezala, galipota hondartzetako denboraldiaren hasierarekin batera ekarri du itsasoak. Neguan ekarritakoa gehiago izan arren, larritzeko moduko kopurua iritsi da Itzurunen hondartzara. Berriro ere garbiketa lanak egiten hasi dira, eta udan galipota gehiago ekarriko duen kezka dagoenez, garbitzaileak prest egongo dira galipota ekarri bezain pronto garbitzeko.

Galipota berriro ere gure artean ikusita, galdera hauek egiten ditugu guztiok: hondartzan lasai ibili al gaitetze? Itsasoan bainatu al gaitetzke?

Eusko Jaurlaritzak oraingoz ez du bainatzea debekatu. Hala ere, galipota gehiago ekarriko balu hondartzak ixteko erabakia hartuko lukeela dio.

Ekologistek kritika egin diote Jaurlaritzari. Haien arabera, galipotaren lehen arrastoak iritsi zirenean hondartzak itxiarazi zituen Jaurlaritzak, eta orain ere gauza bera egin beharko luke. Guztion osasuna jokoan dagoela diote ekologistek.

Bada beste galdera bat. Egunotan ekarritako galipota Prestigen azken isurietatik dator edo haitzetan itsatsita zegoena da? Edo bietatik pixkat? (kasu honetan asko esatea hobeto)



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunak: 8:30 - 10

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantí
español
cataloníen
suomi
basc
català
finnois
français
anglais
catalan
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ERRIBERA KALEA 2 - JUNIAIA 943 862543

Udala eratuta



Ekainaren 14an egindako batzarrean ez zen ezustekorik izan, eta Maria Eugenia Arrizabalaga izango da datozen lau urteetan Zumaia alkate.

Batzarrean ez zen aparteko gauzarik gertatu. Hasteko Udalaren eraketa egin zen, eta oso azkar egin zuten lehenbiziko lan hau.

Ondoren alkatea aukeratzeko bozketa-
ren txanda izan zen. Boto sekretuaren
bidez egin zuten bozketa, beti egin izan
duten bezala. Ez zen ezustekorik izan,
eta EAJ-EAko Maria Eugenia Arrizabala-
ga alkate aukeratu zuten. Zazpi boto jaso
zituen; Izustarriko Andoni Etxanizek
hiru; PSE-EEko Emiliano Cabañasek
bi; eta Ezker Batuko Kristina Forcadak
bat. Dena espero bezala, beraz.

Behin alkate izendatuta, ohiko hitzal-


U DALAREN ERAKETA

EAJ - EA:	Maria Eugenia Arrizabalaga, Asier Esnal Albizu, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Manuel Zubia Astarbe, Lide Amilibia Bergaretxe, Abel Yeregi Sasiain, Mikel Olaizola Elosua
IZUSTARRI:	Andoni Etxaniz Osa, Mikel Garate Golmaio, Joseba Josu Aspiazu Azkarraga
PSE - EE:	Emiliano Cabañas Gonzalez, Paloma Heredero Negrodo
EZKER BAT UA:	Maria Kristina Forcada Unanue

ditoxa egin zuen alkate aukeratu berriak. Gero, Izustarrikoek ere hitza eskatu, eta zer esana bazutenez, hitza eman eta aukera hori baliatu zuten.

Horrela joan zen, hortaz, batzarra. Legegintzaldi honetako lehenengoa. Beste asko ere egin beharko dituzte.

Herriaren onerako den bitartean, eta denen iritzia errespetatuz egiten duten bitartean, egin ditzatela nahi beste batzar. Hori bai, batzarretan herritarrei parte hartzen uzteaz gain, herritar horien iritzia entzungo balute, askoz hobe.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885369

Denok batera

Zumaiako Udalaren oniritziarekin Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatuko da gure herrian

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Aholku Batzordeak elkarlanean prestatutako plana garatzeko Udalak hartu dituen konpromisoak azaldu zituzten Forondan egindako ekitaldian. Herriko kultur eta kirol elkarteak, ikastetxeak, eta beste hainbat elkarte zeuden ekitaldira gonbidatuta. Horietako batzuk izan ziren Forondan. Denak zer entzungo bertaratu ziren. Eta entzun hitzak entzun zituzten. Hitz politak. Orain hitzok ekintza bihurtu behar. Hori egiteko bidea zein izango den entzuteko gogoarekin geratu zen bat baino gehiago.

Udalaren asmoak

EBPNren bidez Zumaiako Udalak lortu nahi dituen hiru helburu estrategikoak hauek dira:

1. Euskararen transmisioa ziurtatu.
2. Eskoletatik kanpoko ekintzetara euskararen erabilera zabaltu.
3. Euskara etengabe elikatu, zumaiarrek euskaraz eroso eta erraz egi dezaten.

Helburu horiek lortzeko Udalak konpromiso batzuk hartu ditu. Alkateak azaldu zituen 10 konpromiso horiek. Batzuk aipatzearen hona deigarrienak: Plan Estrategikoaren iraupena eta proposamena egingo du; Aholku Batzordea sortuko du; eta Plan Estrategikotik abiatuta, lehenengo urteko Kudeaketa Plana osatuko du.

Kultur eragileen parte-hartzea

Askotan gertatzen da, beti ez esatearren, horrelako ekimenak Udalak bakarrik egiten dituela. Herriko kultur eragileak ez dira kontuan hartzen. Oraingoan badirudi eragile horien iritzia kontuan hartzeko asmoa badagoea. Beharrezkoa da aurrerapauso hori egitea. Herriaren iritzia entzutea ezinbestekoa da. Denon artean hitz egin eta eztabaidatuta erabaki hobeak hartzeko aukera izaten da. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gure herrian denon parte hartzearekin garatuko balitz, Zumaiak eta euskarak irabaziko lukete. Ea horrela izaten den!!



Patxi Goenaga, Hizkuntza sailburuordea; Maria Eugenia Arrizabalaga, alkatea; eta Lore Leanizbarrutia, Foro Aldundiko Euskara sustatzeko zuzendaria.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Berriaren aldeko akzio salmenta aurrera doa pixkanaka



Baleikek ere erosi du Berriako 300 euroko akzio bat.

27.000 euro lortu behar dira Zumaian eta oraindik 12.000 euro baino gehiago falta dira.

Euskarazko egunkari berria kalean da. Euskaldunon Egunkaria itxi eta lau hilabetera jaio da Berria, langileek eta euskal gizarteak egindako ahaleginari esker. Harrera bikaina izan du gainera, lehen asteburuan ale guztiak agortu baitziren (tirada 50.000koa izan zen). Garbi dago Berriak ikusmin handia sortu duela eta orain irakurle kopuru handi bati eustea da erronka. Euskal-

dunon Egunkariak 15.000 erosle zituen, Egunerok 23.000; berriak 25.000tik gora izan nahi ditu. Marka bikaina litzateke, proiektua indarrez abiatzeko oinarri sendoa, eta euskarazko prentsa idatziarentzat izugarrizko lorpena (kontutan hartu behar da erositako ale bakoitza hiru lagunek irakurtzen dutela, batzaz beste).

Irakurleak dira, dudarik gabe, egunkari bati zentzua eta bizia ematen diotenak. Baina komunikabide jaioberriak diru sarrera ez ohikoak ere behar ditu, hasieran egin beharreko gastuei aurre

egiteko. Berriak 5 milioi euro lortu behar ditu eta horretarako martxan da akzio salmeta maiatza amaieratik. Orain arte bi milioi euro inguru bildu dira, eta kanpainaren balorazio ona egiten da. Dena den, oraindik beste hiru milioi euro falta dira, eta kanpainan parte hartzeko deia egiten zaio euskal gizarteari.

Zumaian 27.000 euro dira lortu beharrekoak, eta oraingoz 15.000 inguru lortu ditugu. Erdia pasa dugu, baina oraindik beste 12.000 falta dira. Orain arte norbanakoak izan dira gehien bat dirua jarri dutenak, eta horregatik dei berezia egiten zaie kultur eta kirol elkartei, enpresei, taberna, jatetxe eta komertzioei akzioak eros ditzaten. 50eko akzioak agortzeaz direnez, 300ekoak erosteko zailtasunak dituztenek koadrilan edo familian eskura ditzakete.

Ostirala 27, jaialdi berezia

Akzioak erostean gain, Berriaren alde antolatzen diren hainbat ekintzetan parte hartzera bultzatu nahi ditugu zumaiaarrak. Esate baterako, Sanpedro-etako egitarauaren barruan, jaialdi berezia izango ostiral gauean Aita Mari aretoan. Bertan, Zumaiaiko hainbat artista ezagunek ikuskizun ederra prestatu dute, eta sarreran bildutako dirua Berriarentzat izango da.



Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Zozketa erakargarria

Zozketa berezi bat ere izango da Sanpedroetan. Batzuk gogoan izango duzue kirolariek emandako gauzeekin Berriaren alde egindako enkantea... Bada bi zumaierrek Mikel Aranbururen Realeko elastikoa eta Binakako finaleko elastiko eta pilota sinatuak lortu zituzten, eta Zumaiaiko Batzordearen esku utzi dituzte zozketa egiteko. Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, sari preziatuak baitira (Aranburuk eta Binakako finala jokatu

zuten lau pilotariek egunkariaren alde emandakoak dira, ez ahaztu!). Zozketa-rako txartelak tabernetan izango dira, eta kalean ere salduko dira.

Bestetik, udan zehar beste hainbat ekitaldi antolatu nahi ditu batzordeak, eta ateak zabalik ditu edonork proposamenik egin nahi balu.

Bulegoak zabalik jarraitzen du

Akzio salmenta martxan jarri zenetik, Egunkariaren Aldeko Zumaiaiko Ba-

tzordeak turismo bulego zaharrean izan du bere txokoa, eta han jarraituko dute kanpaina amaitu arte. Astearte, asteazken eta ostegunetan zabaltzen dute, 18:30etatik 20:30etara. Bertan eros ditzakezue akzioak edota behar duzuen informazioa eskatu. Akzioak erostekotan egon arren oraindik egin ez duzenoi lehenbailehen egiteko eskatzen zai-zue, Berriak diru premia baitu. Telefono zenbaki bat ere badute bule-goan: 625708747.

BERRIA: ERAKARGARRIA ETA IRAKURTERRAZA

Berria hartu eta lehen bistarazoen garbitasunak deitzen du atentzioa. Diseinu modernoa du, sinplea baina erabilgarria, irakurtzera deitzen duena, elementu ezberdinak garbi agertzen dituena. Azala bera ere oso modernoa da: Berria mantxeta ezkerrean, argazki siluetatuak,... Berriako kazetariek jorratutako gaiek garrantzi berezia dute, lan propioa bultzatu nahi dutela erakusteko. Lehen ez bezala, Harian sailarekin abiatzen da Berria. Egun horretan bereziki landutako gaia da, gai garrantzitsua delako, edota Berriak jorratutako gai propioa delako. Gero iritzia dator, kolore guztieko hamaika zutabegilerekin. Ondoren Euskal Herria saila, eta bertan hartzen ditu politika eta gizartea sailak. Gero ekonomia, mundua eta gaiak. Hor amaitzen da lehen

zatia, nolabait esateko. Diseinuanere nabarmena da jauzia. Hortik aurrera kirola, kultura eta agenda. Kirola eta kultura sailetako disenua apurtzaileagoa da, arriskatuagoa eta ikusgarriagoa, gaiek aukera ematen dutelako. Dena den, sail guztietan helburua berbera da: irakurtzeko moduko egunkari bat egitea, egunkari erakargarria, titularretan geldituko ez dena, zerbait propioa aportatuko duena. Horregatik egin da erreportaia, elkarrizketa, analisi eta iritzien aldeko apustua. Berriak beste edozein egunkarik baino askoz kolaboratzaile gehiago izango ditu, ez bakarrik iritzi sailean, sail guztietan baizik. Baina guzti hau baieztatu eta gozatzeko Berria egunero erostea da modu bakarra. Eman aukera bat euskarazko prentsari!



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kaler, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kaler, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu

... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirol zelaien mantenimendua

Txostenak ...

aholkularitza teknikoak,

Balorazioak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
arotegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK**
ERRIBERA, 8 943 861694



Basadi Auzategia, 9-A 2-B



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

“Gizartearekin nuen zorra kitatzeko sartu nintzen politikan”

Alkate izatearen pisua arinduta, Rikardo Peñarekin solasean aritu gara, eta herrian garrantzia duten hainbat gai jorratu ditugu.

Herrian iskanbila dezente sortu zuen Kirol Portuan elkar-tu gara, Rikardo Peñaren agintealdiaren ikurra den lekuan. Kanpoan sekulako eguraldia egin arren, bilera gela batean sartzeko gonbita egin digu...

Zenbat urte egin dituzu alkate?
Hamabi, eta beste lau zinegotzi bezala.

Ez al dira urte gehiegi? Alkate karguan zortzi urtean ego-tea omen da egokiena...
Bai, baliteke zortzi urtekoa izatea epe egokiena. Guk hiru legegintzaldi egitea erabaki genuen azkeneko lau urteetan egitasmo asko geneuzkalako aurrera ateratzeko.

Alkate izan aurreko eta alkate izan ondorengo Rikardo Peña pertsona bera al dira?

Galdera ona da hori. Ni saiatu naiz ez aldatzen, baina ez da beti lortzen. Pertsona bakoitzak bere lanbidean bilakera bat izaten du beti. Hasieran konfiantza gutxi izaten duzu, dena berria da, eta ardura handia izaten da. Gero denborarekin lanbidea ikasten joaten zara.

Zergatik sartu zinen politikan?

Gizartearekin nuen zorra kitatzeko. Gizarteak eman zidana bueltatu nahi nion. Ikusten nuen gizarteak hobetu zitekeela, eta nik zerbait egin nezakeela.

Zer zor zenion gizarteari halako konpromisoa hartzeko?

Hori arazo pertsonal bat izan zen, eta neuretzat gordetzen dut.

Momentu honetan orain hamasei urte hartu zenuen erabaki bera hartuko al zenuke?

Bai. Niretzat oso esperientzia aberatsa izan da. Ohore bat da norbere herriko alkate izatea. Gainera zortea izan dugu, eta hainbeste maite dugun Zumaia asko hobetu ahal izan dugu.

Batere antzik ba al dute orduko Zumaia eta oraingoak?

Gauzak asko aldatu dira, eta onerako, gainera. Orduan inork ez zuen zentimorik ematen Zumaia alde. Gaur egun, berriz, azpiegitura ona daukagu, oinarri sendoa egin dugu alor askotan: industrian, hezkuntzan, kirolean, era guztietako zerbitzuetan...

Zumaia asko aldatu da azken urteetan. Hori zer da, udalaren meritua edo ekonomiaren bolada ona?

Nik uste dut bietatik pixkat dela. Denak dauka eragina. Gogoan dut 1993an sekulako krisia zegoela Zumaian. Langabezia % 21ean zegoen, Euskal Herrian baino bost puntu gorago. Gaur egun, berriz, Euskal Herrian % 9ko

langabezia dago, eta Zumaian % 4koa, bost puntu gutxiago. Alderdi horretatik zerbait ona egin dugu, beraz. Egia da ekonomiak bere bidea egiten duela, eta bide hori aldatzeko ezin dezakegula gauza handirik egin. Baina gu krisi garaian gerorako, bolada onerako bitartekoak jartzen hasi ginen, eta hor bete-betean asmatu genuen. Plangintza orokorra egin genuen, plan estrategikoa hurrengo hamabost urteetarako, eta ekonomiak onera egin zuenean gu prestatuta geunden.

Alkate izan zaren hamabi urteetan zein izan da buruko min gehien eman dizun gaia?

Inongo zalantzarik gabe kirol portua. Ikaragarria izan zen, neurrigabekoa.

Guk hemen jaso genuen oposizioa handiegia izan zen. Denboraren poderioz ikusi da ekologistak eta kontra zeuden guztiek zituzten beldurrak ez zirela hainbeste-koak. Oposizioak eskura dituen tresna guztiak erabiltzen ditu, eta garai hartan gezur asko esan ziren. Batzuek zioten Zumaia zerbitzuetako herria bihurtuko zela, baina denborarekin erakutsi dugu kirol portua beste egitasmo batzuen konplementoa zela. Aldi berean beste gauza asko egin ditugu: orain Korta industriagunea dena, babes ofizialeko etxeak... Gure politika urbanistikoa erabat interbentzionista izan da. Zumaia erapenean buru-belarri murgildu gara herritarren eskaerak betetzeko.

Kirol portua hasieran uste zenuten bezain emankorra izan al da? Ontzi gutxitxo ez al dago?

550 ontzirentzako lekua dago, eta orain 300 ontzi daude. % 60 beteta dago. Sei eta hamar urte bitartean erabat betetzeko aurreikuspenak egin genituen, eta aurtan lau urte beteko dira ireki zenetik. Bere martxan doa. Kontuan izan behar da sektore hau oso gutxi garatuta dagoela gure inguruan. Ireki zenean, gainera, ETArekin su etena zegoen, eta egoera horretan jendeak horrelako gauzetan errazago inbertitzen du. Orain, ordea, bi aldiz pentsatzen du horrelako negozioetan sartu ala ez. Hala ere, bide onetik doa, eta hamar urte barru beteta egongo da.

"Ohore bat da norbere herriko alkate izatea"



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970



Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



“Gure asmoa izan
da herritarrei
herrian
gelditzeko
eskaintza egitea,
lana eta
etxebizitza
ematea”

Lokal gehienak ere hutsik daude...

Lokalen inguruan azalpen bat eman behar dut. Lokal horiek ezin dira erosi. Hogeita hamar urterako alokatzen dira, eta nire ustez jendea horrexek botatzen du atzera. Jendeak propiedadean nahi ditu gauzak, baina lur publikoa denez, ezin dira propiedadean erosi. Donostian, adibidez, lokalak alokatuta hartzeko ohitura gehiago daukate. Hemen ez, baina denborarekin gauzak aldatuko dira.

Diru publikoarekin egindako obra izanik, esku pribatuetan egotea salatzen du jendeak.

Ez da horrela. Ez dago esku pribatuetan. Orain kirol portua ustiatzen dutenak pribatuak dira, baina ez da beraiena. Hogeita hamar urterako alokatuta dute. Urte horiek pasata berriro ere Eusko Jaurlaritzaren esku egongo da kirol portua.

Kirol portua utzita, alkatetzari helduko diogu berriro. Zenbaterainoko askatasuna dauka alkateak bere alderdiaren barruan? Alkatearen erabakiak du indarra edo alderdiaren buruzagitzak?

Gure alderdian askatasun handia daukate alkateek. Gurea ez da aginduak ematen dituen alderdia, beste batzuk ez bezala. Egia da politika orokorrean aginduak ematen dituztela, baina eguneroko lanean, herri bateko arazoetan herri mailan erabakitzen dira erabaki beharrekoak.

Alkate bezala egindako zerbaitetaz damutu al zara?

Denbora falta izan zait gauza batzuk bukatuta ikusteko. Adibidez, giza errekurtsioen zentroa, interpretazioko zentroa, depuradorak... Baina beti gertatzen dira horrelakoak. Ezinbestekoak dira.

Kulturari helduko diogu orain. Zuen alderdiari, EAJri leporatzen zaio kudeaketa lanetan erabat murgiltzea, eta kultura baztertzea.

Ez da horrela. Zumaian azken lau urteetan ekintza kulturalak antolatzeke egin den lana ikusgarria izan da. Orain alkate den Maria Eugenia Arrizabalagak sekulako lana egin du. Antolatu diren ekintza kultural guztiei diru laguntza eman diegu. Kultura bultzatzeko diren ekintzak laguntzeko beti prest izan gara.

Uda garaian kirol portua bizirik egoten da, baina neguan ez al da hilda izaten?

Hori kirol portu guztietan gertatzen da. Hala ere, hemen Zumaian neguan ere itsasoratzen dira ontziak. Gogoan dut zuen aldizkarian ateratako komiki batek zekarrena, nire ontzia bakarrik egongo zela kirol portuan. Haiei esan behar zaie orain hirurehun daudela. Eskerrak guk egindako apustuari gogor eutsi genion, bestela ez litzateke kirol porturik egongo, eta Zumaia beste tren bati pasatzen lagako zion.

Gure herriko hainbat kultur talde desagertu dira azken urteetan...

Baina hori ez da gure errua. Kultur talde horien ardura zuten pertsonen beste bide batetik joateko erabakia hartzen badute, hor ez dago zer eginik. Gizartearen lana da ekintza kulturalak sortzea, kultura indartzeko taldeak egitea. Udalak ekimen horiek denak babestu eta bultzatu egin behar ditu. Euskal kulturaren gaineko kezka duten guztiak animatuko nituzke ekimenak eta ekintzak antolatu, eta Udalera jo dezaten. Udalak babes osoa emango die. Azken urteetan kulturarekin zerikusia duten hainbat gauza egin ditugu: zinea berritu genuen, Foronda Kultur Etxea egokitua dugu, Internet erabiltzen ikasteko gela daukagu, antzerki emanaldi asko eskaintzen ditugu...

Rikardo Peñari beti leporatu izan zaio kaleko bizitza ez egitea. Alkate batek ez al luke kalean gehiago ibili behar? Herritarrek in harreman gehiago ez al luke izan behar?

Beti esan didate hori, baina ez nago ados. Egia da txikiteoan ibiltzea ez zaidala gustatzen. Hala ere, goizero-goizero kotxea hartu, eta herriko kale guztietan ibili izan naiz. Alkate batentzako interesgarria da herritarren eskaerak eta pentsamoldeak jasotzea, eta saiatu izan naiz herrian zehar ibiltzen, eta jendeari entzuten.

Gatozen etxebizitzaren arazoari buruz hitz egitera. Udalarentzat negozioa al da etxebizitzena?

Nola izango da ba negozioa? Udalak bere bitartekariak ditu industrientzako eta etxebizitzentzako lurak erosteko. Zumaia Lantzen da gure bitartekaria. Arlo honetan lortutako irabaziak lur gehiago erosteko erabiltzen ditu Udalak.

Udalak lur sail bat zenbat eta garestiago erosi, orduan eta irabazi gehiago izango ditu, ezta?

Lur sailak ezin dira balio dutena baino garestiago saldu. Mugarri bat dago, legeak jarritako mugarria. Udalak ez du ez irabazirik izan behar, ezta galerarik ere. Parrean egon behar du.

Azken urteetan Zumaian babes ofizialeko etxe asko eraiki dira, baina alokairuzkoak eraikitzea ez al litzateke hobea?

Hori oso zaila da. Diru asko behar da alokairuko etxeak egiteko. Izugarritzko finantziazioa behar da. Guk ez daukagu hainbeste diru. Gainera, gure artean ez dago alokatzeko kultura. Jendeak nahiago du alokairua ordaindu baino kredituari aurre egitea. Arrazoi nagusia da dirurik ez daukagula. Babes ofizialeko etxeak salduta dirua berreskuratzen dugu, baina alokairuzkoekin ez.

Diru arazo hori nola konpon daiteke?

Oso zaila da. Eusko Jaurlaritza sartzen ez bada...

Zumaiaiko gazte askok inguruetakoa herrietara jo du etxebizitza erostera. Hori gogorra al da alkatearentzat? Orain dela hamar bat urte egindako azterketa batek azaldu zigun gazte asko kanpora zihoala. Horregatik egin dugu etxebizitzaren gaian hainbesteko lana. Gure asmoa izan da herritarrei herrian gelditzeko eskaintza egitea, lana eta etxebizitza ematea. Eta azkenaldian jendea ez doa kanpora, jendea etorri egiten da.

Etorkizuneko Zumaia nola ikusten duzu?

Ondo. Galduta zeukan maila berreskuratu du, baina oraindik ez dugu ikusi eman dezakeen benetako maila. Oinarria jarrita daukagu, prestatuta gaude etorkizunerako. Industria sendoa dugu, 3. sektorea ere indartu egin da. Turismoa etorkizunerako baliabidea da. Ekonomiaren bolada txarra etortzen denerako prestatua gaude.

Hemendik aurrera zer egingo du Rikardo Peñak?

Momentuz langabezian nago. Enpresa batzuekin hitz egiten ari naiz, eta zerbaiz bilatuko dut. Gainera, alkateek ez dugu langabezia kobratzeko eskubiderik. Kuota ordaintzen dugu, baina ez dugu kobratzen.

RIKARDO PEÑA

49 urteko zumaia honek Ingenieritza Teknikoko ikasketak ditu. 12 urtez izan da alkate, eta aurretik 4 urtez zinegotzi. Belaontzian ibiltzea gustatzen zaio, baita irakurtzea ere.





METALGINTZAN TRUMOI HOTSAK

**Gipuzkoako
hitzarmenaren
negoziaketan etenda
daude sindikatuen eta
patronalaren arteko
harremanak. Sekula
baino giro gaiztoagoa
dago bi aldeen artean.**

SINDIKATUAK ETA patronala ez datoz bat negoziaketak etetearen arrazoiak aipatzera-koan. Elkarri leporatzen diote oraingo egoeran izatearen errua. Batek arrazoi izan edo besteak izan, gauza bat dago garbi: orain enpresa bakoitzak bere hitzarmena negoziatu behar duela.

Horretan ari dira orain Zumaia-ko hainbat enpresatan. Baina gure herri-ko enpresetan gertatzen ari dena azaldu baino lehen, sindikatuak eta patronalak auzi honetan duten iritzia ezagutuko dugu.

Sindikatuak

ELA eta LAB izan dira batez ere negoziaketetan parte hartu dutenak. Sindikatuok garbi zuten hasiera hasieratik aurreko urteetako hitzarmenak baino zabalagoa izan behar zuela aurtengoa. Orain arteko hitzarmenetan, batez ere, bi gai izan dira ardatzak: soldata igoera, eta lanordu murrizketa. Beste hainbat gauza ere hitzarmen horietan sartu arren, gehienbat soldata igoera eta lanordu murrizketa ziren pisu gehien zuten gaiak. Aurtengo hitzarmeneari lantegiei eta langileei dagoz-kien beste hainbat gai sartu nahi izan

dituzte sindikatuek: lan istripuak, eze-gonkortasuna, ebentualtasuna, Geroa, eta abar. Sindikatuen arabera, ezin daiteke orain arte egin dena egin, alegia, gai horiek denak enpresa bakoitzaren negoziaketan esku laga. Langileek indarra duten enpresatan zerbait lortu ahal izan da, baina beste enpresa askotan..

Sindikatuek lan asteak 35 ordukoak izatea nahi dute. Beraien ustez, Euskal Herriaren eredia, eta beronen gizartearen eredia dago jokoan negoziaketa honetan.

Patronalak proposamen horiei denei ezezkoa eman die. Ez du ezertxo ere jakin nahi, sindikatuek diotenez. Gainera patronalak negoziaketa mahaira eramandako soldata igoerari eta lanordu murrizketari dagozkion proposamenak barregarriak izan direla diote sindikatuek. Soldata igoeran Kontsumorako Prezioen Indizearen igoeraren azpitik dago proposamena, eta lanorduen murrizketan ordu bat bera ere ez murriztea proposatu du.

Hori dena kontuan izanda, sindika-

tuek mobilizazioetara jotzea erabaki dute, eta hainbat greba egun egin dituzte.

Patronala

Gipuzkoako enpresariak biltzen dituen Adegí patronalaren iritzia beste muturrean dago. Sindikatuei leporatzen die negoziaketak etetea. Mahaian esertzerako mobilizazioak prest izatea leporatzen die. Adegí bera, aldiz, beti hitz egiteko prest dagoela dio.

Euskal Herriaren eredua, eta beronen gizartearen eredia dago jokoan negoiaketa honetan

Sindikatuen eskaerei dagokienez, hauxe dio patronalak: langile guztientzako eraginkortasun orokorreko hitzarmenaren alde dagoela. Soldata igoerari eta lanorduen murrizketari

dagokionez, sindikatuen eskaerak errealitatetik eta enpresen aukeretatik urrun daudela dio.

Eguno egoera ekonomikoa nola-koa den esaterakoan ere ez datoz bat sindikatuak eta Adegí. Aurrenekoek diote ekonomiaren egoera ona dela. Bigarrengeok, aldiz, ezegonkortasun-ean gaudela.

Eta orain zer?

Lehen aipatu bezala, enpresa bakoitza bere hitzarmena negoziatzen ari da. Hori lehen ere egiten zen, Gipuzkoako hitzarmena sinatuta egonagatik ere. Gertatzen dena da, probintzia mailako hitzarmen hori oinarria izaten zela, eta hortik aurrera edo hortik gora negoziatu zezaketela enpresetan. Orain oinarri hori gabe, enpresa bakoitzak ahal duena negoziatu behar-ko du. Sindikatuen arabera, hitzarmenak lortu dituzten enpresatan beraien eskariak bete egin dira. Patronalak dienez, berriz, beraien eskarietatik gertuago daude lortutako hitzarmenak.

ZUMAI AKO ENPRESETA KO EGOERA

GKN : lehendik zuten hitzarmena negoziatuta. Datorren urtera arteko hitzarmena da hori. Aurtengo soldata igoerari dagokionez, % 4,5ekoa izan da. Lanorduak direla eta, aurtun 24 ordu gutxiago egin dituzte. Datorren urterako 25 orduko lanordu murrizketa dute hitzartuta.

KO RTA: langileek greba egin ondoren, hitzarmena sinatu dute. % 5,8ko soldata igoera, eta 6 lanordu gutxiago hitzartu dituzte.

LAGUN ARTEA: komiterik ez dagoenez, ezin izan dugu enpresa honetako daturik lortu.

MENDIARAIZ: soldata igoera Kontsumorako Prezioen Indizea + 30 26 euro. Lanorduen murrizketa 10 ordukoa.

OLAIZOLA: % 5,5eko soldata igoera eta 16 orduko murrizketa izenpetu dituzte.

X E Y: soldata igoera % 5,75ekoa eta % 7,6koa.

G UASCOR: hitzarmena negoziatzen ari dira.

URPEMAK: % 4,4ko soldata igoera. Lanordu murrizketa probintziako hitzarmenaren araberakoa. Hitzarmen hori lortu ez denez, lehengo urtean bezala segiko dute.

TORREAGA: % 5,5eko soldata igoera. Lanorduak murriztuko dituzten ezin izan dugu jakin.

IGOR GARATE ETA ASIER ARAKISTAIN:

"LANGILEEN KONPROMISOAK HANDIAGOA IZAN BEHAR DU"

Igor eta Asier GKN enpresan ELA eta LAB sindikatu-
tako ordezkariak dira, hurrenez hurren.
Gipuzkoako hitzarmenarekin geratu denari tiraka hasi,
eta beste hainbat gauza jorratu ditugu.

Sindikatuaren eta patronalaren arteko negoziazioak eten
egin dira hitzarmen probintziala negoziatzerakoan.
Zergatik?

Asier Arakistain: orain arteko hitzarmenetan Kontsu-
morako Prezioaren Indizearen arabera soldata igo-
era eta lanorduen murrizketa bakarrik negoziatu izan
dira. Aurten beste gauza batzuk ere
negoziatu nahi izan ditugu: prekarie-
tatea, lan istripuak.... Horiek denak
hitzarmenean sartu nahi izan ditugu,
baina enpresariak ez dute horrelakorik
nahi.

Aurten arte zergatik ez duzue dena
hitzarmenean sartzeko ahaleginik
egin?

Asier Arakistain: soldata igoera eta
lanorduen jaitsiera ez ziren gainon-
tzeko gaiak enpresa bakoitzak negoziatu izan ditu.
Baina enpresa bakoitzak ahal duena egin izan du; lan-
gileek indar handia bazuten zerbait lortzen zuten,
baina besteek... Horregatik Gipuzkoako hitzarmenean
sartu nahi izan ditugu gai guztiak.

Gipuzkoako hitzarmenak zein eragin du enpresetan?

Igor Garate: Hitzarmen hori minimo bat da. Nolabait
esateko, helduleku bat da. Gero, hortik gora enpresa
bakoitzak hobekuntzak negoziatu ditzake.

Aurtengo negoziazioetan sekula baino aldenduago izan
zarete sindikatuak eta patronala. Zergatik?

Asier Arakistain: Sindikatuok "kitto" esan dugulako.
Lan segurtasuna orain arte ez da hitzarmenetan sartu,
legez sartzeari dagokion arren. Eta sindikatuak aurten-
dik ez pasatzea erabaki dugu.

Igor Garate: Geroa-ren gaia ere hor dago, hitzarmene-

tik kanpo. Sindikatuak arlo horretan igoera eskatu
genion patronalari, baina ezetz erantzun ziguten.
Azkenean, hitzarmenetik kanpo egon diren gaiak
hitzarmenean sartu nahi izan ditugu, baina enpresa-
riak ez dute ezer jakin nahi izan.

Hitzarmena sinatu gabe, zein da oraingo egoera?

Asier Arakistain: Orain enpresa bakoitza bere hitzar-
mena negoziatzen ari da, eta zenbait lekutan soldata
igoerak Kontsumorako Prezioaren Indizea baino han-
diagoak izatea lortu da 10 eta 15 orduko lanordu
murrizketa ere erdietsi da. Gipuzkoako
hitzarmenean hori zen eskatzen
genuen gutxiena, baina Adegutxien-
go horietara iritsi ere ez zen egiten.

Hortaz langileentzat mesedegarria da
Gipuzkoako hitzarmena ez sinatzea?

Igor Garate: Mesedegarria ezta inon-
dik ere. Hala balitz ez ginateke Gipuz-
koako hitzarmena negoziatzera ere
joango. Hasiera hasieratik enpresa
bakoitzak bere negoziatu eta kitto!!

Mesedegarria baino gehiago kaltegarria da langileen-
tzat

Asier Arakistain: Ez digu batere mesederik egiten,
milaka langile daude hitzarmenik gabe.

Patronala hasi da esaten sindikatuaren erruagatik Euskal
Herriko enpresa askok alde egin behar izan dutela. Zer
iritzi duzue horretaz?

Asier Arakistain: Datorren urtean Hegoaldeko lau
herrialdeetako hitzarmenak negoziatu behar dira. Aur-
ten Gipuzkoan gertatu dena datorren urtean Hegoal-
deko gainontzeko herrialdeetan gertatzeko arriskua
dago. Gerta litekeena ikusita enpresariak auzi horretan
izango luketen errua kanpora botatzen ari dira. Errua
beti da besteena, eta gainera, langileen eskubideak
hobetzeko sekula ez dago baldintza egokirik. Beraien
poltsikoa betetzeko bai, baina langileekin etekinak
banatzeko ez.

Igor Garate: Azken urteetan sekulako irabaziak izan dituzte enpresek, baina langileen soldatetan irabazi horiek ez dira islatu, ez behintzat proportzio berean. Hurreratu ere ez.

Asier Arakistain: Hemendik urtea bukatu bitartean behin baino gehiagotan esango dituzte horrelakoak sindikatuek. Egoera zaila datorrela, gerrikoa eztutu behar dela...baina dena datorren urteko negoziazioei begira esango dute.

Datorren urteko negoziazioetan aurten Gipuzkoan gertatu dena Hegoalde osora zabalduko al da?

Asier Arakistain: Gure sindikatuak Gipuzkoan izan duen jarrera bera izango du. Onartu ezin dena kontraesan hau da:alde batetik lan istripuetan hiltzen ari den jendea, eta bestetik enpresariak izaten ari diren irabaziak.

Igor Garate: Nik uste dut bide beretik joango direla gauzak.

Hitzarmena negoziatzen ari zen garaian egindako mobilizazioetan langile askoren parte hartzea ez al da eskas samarra izan?

"Lan istripuetan jendea hiltzen ari da, eta enpresariak dirua irabazten"

Asier Arakistain: Hor eragina dauka enpresa bakoitzaren hitzarmenak. Zumaian lehen bi greba egunetan ia enpresa guztiak gelditu ziren. Gero hurrengo grebetan egia da parte hartzeak behera egin zuela.

Zuen sindikatuen baitan nabaritu al duzue afiliatu edo kideen konpromisoak eta militantzia mailak behera egin duela?

Asier Arakistain: Langileen kontzientziazio mailak behera egin duela ezin da ukatu.

Igor Garate: Egia esateko gure lantegia berezi samarra da...UGT Gipuzkoan % 10era ere ez da iristen, baina gure lantegian gehiengoa dauka. Eta gainera, gure kontra egin dute hitzarmenaren auzi honetan.

Asier Arakistain: Beraien ustez gure aldarrikapenetan Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren eskaera dago, eta hori aurpegiarata planto egiten dute.

Igor Garate: Botatzen diguten aurrena hauxe da: arazo politikoa sartzan dugula auzi honetan. Hori esan, eta pareta modukoa jartzen digute aurrean. Hor-tik aurrera ez dute ezer jakin nahi.



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

fidatzeko baimen guztiak



INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Paolaldeko itxura berriya gustatzen?



Unai Agirrezabalaga

Earki zio. Politta. Asko irabazi dik, baina aparkamentu asko kendu ditek.



I aki Castro

Politta gelditu dek, behintzat. Lehen baino dotorio zio. Dana dala, bizikletantzat indako bidia alperrik daola uste diat.

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA
Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

• **Eskaiola**
• **Pladur-a**

CROISSANTERÍA



pizzak
hanburesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



Jabier Lazkano

Aparkatzeko lekuak gorde ditiztek, ta hori ondo ziok. Dotoria ziok, ta bizikletantzako bidia're ondo daola uste diat.



Ana Ega

Ondo politta dao. Ikusi detena behintzat, ondo dao. Pega txiki bat: bainatzea jaisteko eskailerak ez dituela uian berritu. Nere ustez, dana batea berritu ber ztuen..

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea

tel: 943 86 16 66

e-mail: denda@ostolaza.com

www.ostolaza.com



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6

Tel. 861155

Tapaia
Taberna

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

AROTEGIA

Urolo 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505

Erribera Kalea 20750 ZEMAJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

Zumaiarrak nagusi Gipuzkoako txapelketan eta Maialen Velarde bigarren Euskal Herrikoan

SASOIAN DABILTZA Zumaiako Bertso Eskolako gaztetxoak, eta urtean zehar egindako lanaren fruituak jasotzea egokitu zaie ekainean. Lehenbiziko sari potoloa ekainaren 6an jaso zuten, Laz-

kaon jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren finalean.

Zarautz, Añorga eta Hernaniko taldeekin lehiatu ziren Markel Peñalba, Maddi Gallastegi eta Maialen Velarde. Agurrak, 4 oinak emanda 2 bertso abestu eta gaiari erantzunez beste 2 osatu ondoren, puntuaziorik altuena lortu zuten aurten Jon Maiak prestatu dituen zumaiarrekin. Ondoan dituzuen bertso-



Zumaiako Bertso Eskola

ak txapela jaso eta gero abestutakoak dira. Azpimarratzekoa da, era berean, bertso paperetan ere aipamen bereziak jaso zituztela Maddi eta Maialenek, txikiagokoen mailan Aritz Uribe-Etxeberriak bezalaxe.

Maialen Velardek, bestalde, Mungian jokatu beharreko Euskal Herriko txapelketarako txartela eskuratu zuen. Hilaren 21ean jokatutako finalean saio borobila osatu zuen eta, txapela esku eskura izan zuen arren, bigarren postu bikaina lortu zuen azkenean, Hodei Iruretagoienea zarauztarraren atzetik. Zorionak txapeldunei eta haiek prestatzen aritu zareten gutzioi!!



Azken agurrekoak

Maddi Gallastegik
Doinua: *Haizea dator iparraldetik 2*

*Txapela ondo buruan sartuz
noa eskeintzen hastera
lagun guztiak hor egon dira
koadrilarekin batera
Jon irakasle zintzo alaia
ezin utzi bazterrera
guretzat beti bertso munduan
eredugarri izan zera
presoak ere espetxetatik
ezin ditugu atera
Egunkariaz nola ahaztu
une hauetan gainera
zuek denontzat zian liteke
buruan daukadan zera
gora Zumaia, gora zuek ta
Egunkaria aurrera !!*

Maddalen Velardek
Munduan libre bizi izatea

*Gure ametsa, gure desira
betidanik zen txapela
eta egindako saiakera
ez da atera ustela
nabari zen Jon, gurasoak ta
koadrilakoen epela
txalo zaparra itzela
bai merezi duzuela
jada uste bainuen ametsak
ezinezkoak zirela
eskerrik asko denoi bihotzez
ezin zitekeen bestela (bis)*

Markel Peñalbak
Leiho ertzetik entzun dezaket

*Bertso eskola omendu nahi dut
merezi duen bezela
Oihan ta Urtzi, Jokin ta Manex
denontzat banatuz gela
Unai Gijarro, Jon ta Joanito
hau hirukote itzela
baina ezin geldi horrela
baten bat falta zaitela
osa dezagun koktela
aita zu zera iluntasuna
argitzen duen kandela
zuentzako da gaurko saioa
zuentzako da txapela.*

Eguzkia eta osasuna Dietetika

UDARA GARAIA helduta, eta nahiz eta gure kostak galipotez beteak egon, negu guztia itxoin ondoren, itsasoaz eta eguzkiaz gozatzeko, hondartzak jendez beteko dira. Eguzkiak gure osasunarengan duen eragina nabaria da, bai kalterako (larruazaleko erreduak eta minbiziak, ADNren lesioak...) zein onerako: eguzkia antidepresibo naturala da, bakterizida, D bitaminaren sintesia bultzatzen du (hezurretako kaltzioa fixatuz), larruazaleko gaitz batzuk sendatzen laguntzen du, eta belztu egiten gaitu.



Izaga Garcia
Dietista

ranteak erabiltzea, eta kontuan izan behar da antibiotikoren bat hartzen ari bagara.

Aipagarria da elikadurak zerikusi handia duela larruazalean, eta eguzkiaren eragin kaltegarriari aurre egiteko elikadura egoiak asko lagunduko digu. A,C,E eta B3 bitaminetan eta Selenio, Zink, Burdina eta Kobre mineraletan oparoa behar du izan. Oro har, urte guztian zehar gorritzka edo laranja kolorekoak diren fruitu eta barazkiak jan behar dira: azenarioa, tomatea, melokotoiak

eta albarikokeak, gereziak, erremolatxa, piperrak... baita gari germena eta garagardo legamia ere, eguzki-lore pipak, oliba olio, perrexila...

Eguzki bainuaren ondoren, after sun edo bestelako ukendua erabiliko dugu, eta gorritua edo erreba badugu buztin kataplasma, sagar ozpin kataplasma (beti ere ur hotzarekin nahastua), yogurra edo gazta freskoa ...

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Jardano J. Azcue Yeregui

Abokatuak • Aseguruak
Finan. Administrazioak

biomin aguirre 4. behe
20.750 zuzkila (guzuzkoa)
E-mail: gazuas@euskalnet.net

Tel: 943 862651
Fax: 943 862748

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670



Sardinha eske Santo Antoniori

LISBOA HIRI tropikala eta festazalea dela seko konbentzitu naiz azken asteotan. Eguzki sargoriak "musker efektua" ekarri du gurera, eta ea zein beltzaranago jarri, hor gabiltza lehian. Eta bestetik aurrekoan jakin nuen Lisboan San Antonio, San Juan eta San Pedro (hau bai hirutasun santuba!), hirurak ospatzen dituztela hemen. Alegia, ekaina osoa eguzkitan festarik festa igarotzen dutela. Bejondeizuela!

Aitortu beharra daukat, guk ekaina bakarrik ez, urte guztia aprobetxatu dugula jairik jai ibiltzeko. Eta aitortu beharra daukat baita ere, aurten bezela, sekula ez dudala hainbeste jende ezagutu (adibidez, lehengo batean Jonh-Jonh Artano topatu nuen kamara ta guzti... besterik gabe... hura ere egin genuen!). Ezagutze kontuak beraz. Gai honetara iristeko irrika neukan aspaldidanik, izan ere neure jatorria zein den esaten dudana bakoitzean, "baskoa izatearen esplikaziyua" deitu diodan berriketaldia hasten da beti. Beti. Antza denez, Salamankako estudiante izan eta "espainola naiz" esatea baino, askoz ere exotikoagoa da oikiarra izan eta "eu sou basco" esatea. Exotikoagoa, bai; jendeak galderak egiteari ekiten baitio, etengabe, afrikako tribu arraro batekoa izango banintz bezela. Jakin-minez, ezjakintasunez, zirikatze gogoz... beti! Edonon delarik ere, enbaxadore lanak egiten ibiltzeaz nazkatu naiz, eta Ibarretxeri soldata eskatzeko asmotan nabil, "plan" txarra al da?, tajuzko enbaxadore oro



bezela politikoki zuzena izateko, arazo larriak baititut! (festagi roan bada, zer esanik ez!). Baina goazi geurera...

Ekainak 12an, Santo Antonio bezpera, goiz goizetik somatzen zen, lisboatar guztiak urte guztian itxaroten duten festak lehertu egin behar zuela. Kale izkina guztietan koloretako zintzilikarioak zeuden, auzo zahar denak tabernatxo eta famili txoznez gainezka. Musika ekipoe fado eta "guitarra portuguesa"-ren soinuak zabaltzen zituzten lau haizetara. Eta hau ikusita, guk ere kalera irten behar genuela erabaki genuen. Jalgi gaitezen kalera! Terrazako plastikozko mahaia hartu, eta kalearen erdian jarri genuen auzotarren harridurarako. Ze arraio, kontu handiz prestaturiko kutixiak

jaten genituen bitartean, balkoitik jarritako musikarekin mugitzen genuen gerribuelta. Aurreko tabernariak errezeloz begiratzen zigun hasieran, bi eskatu eta hiru sardinha saldu zizkigun; baina azkenerako, hura ere gerturatu eta sanba dantzatzan jardun genuen elkarrekin, mantaletik sardinha zahar usaia zeriola! Eta handik, neskazaharrak Urkiolara moduan, gu Alfama auzora joan ginen. Kaleak jendez gainezka, juergasmoan, Lisboa herrixka erraldoi bat bihurtu zela zirudien. Egunsentiraino. Santuari zer eskatu genion?? Zuei esango dizuet ba! Oraingoz, Lisboak honela jarrai dezala.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzu eta arako departamentu


Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322

San Pedrok San Telmori



Titulokideari:

Apirileko Baleiken irakurri
nun Zumaiko gazteei
idatzitako gutuna. Orduko
hartan keja franko bazenun
oso ezaguna etzealako.
Baita gaztien portaeragatik
ere. Lotsagabia bihar du
santuak hoyek danak
esateko!! Ez dezu santu
titulua merezi!!

Aspaldiko kontu eta istorio
batzuk kontauko dizkizut.
Bide batez, esaiozu zure

sekretayuai esan bihar ditudanak apuntatzeko. Uain urte
asko eztala, Zumaiko festak nere izenean ospatzen zianak
izaten zian. Nireak zian herriko festak. Zure izenian iten
zianak ez dakit festa titulua ere merezi zuenik. Arrantzaliak
kriston leatza harrapatzeko besteik etzian zure izena duten
festa hoyek. Lotsagarria!! Eleiza (portzierto, nere izena
dakan eleiza) jun biharrian kalia oker-oker inda ibiltzen
zian gizarajo hayek.

Esaten ai nintzan bezela, nereak zian herriko festak. Zureak
auskalo zer zian!! Normala da hortaz, zu inork ez ezautzia.
Gainea nor da herriko santua?

Lotsagabia izateaz gain lapurra ere bazea. Lapur lotsagabia!!
Azkenaldian ematen du zureak diala herriko festak. Lapurtu

egin diazu ohore hori.
Eta gainea aitu egin
bihar zure kejak!! Ixilik
eoteko hobeto zabe!!

Zein zea zu gazteei
aholkuak emateko,
uretan lazun tartian ibili
zean hori? Hori ere
kontatzekua da ta.
Onena dezu isilik eon,
ta lapurtu didazun
ohorea bueltatzia. Hori
da santu bati eskatu
leiken gutxiyena. Baina
zu ez dakit ze santu
klase zean. Zu santu in zintuena ze artaburu klase ote zan!!



Bukatzeko hauze esango dizut: ez ahaztu zeruan sartzeko
giltzak nik dazkatela. Portzierto, bazpadare ondo gordeko
ditut, hoyek ere lapurtzeko kapaz zea ta.

Besteik gabe, agur!! Bai adiorik!!

PD: zumaiarrei esango dizuet NERE IZENEAN
OSPATZEN DIAN FESTETAN ondo pasatzeko. Eta
famatu SANPEDRUAK, HERRIKO FESTA BAKARRAK
DIALAKO. SANPEDRUAK BAI, SANTELMUAK EZ!!



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIAT

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Z.I.S.K.E.: Zumaiako Itzurun Surf Kirol Elkarte

Lehengo urteko maiatzean erabaki zuten elkarte sortzea.

Miguel Manterolak, lehendakariak, eman digu surf kirol elkartearen berri .

Badirudi surfa Zumaian kirol berria dela. Baina veteranoek esaten dute orain dela 25 urte-edo Zumaian aurrengo surfistak olatuak hartzen hasi zirela. Beraz, bere historia badauka, garai haietan bazen meritua, orduko traje eta tablekin; ez zituzten orain ditugun aurrerakuntzak.

Surfa gero eta gehiago modan jartzen doa, hasierako garai haietatik, zoroen

kirol bat zirudien. Gaur egun jende guztiak ezagutzen du eta bere inguruan negozio handia mugitzen da.

Aurrengo taldea sortzeko saiakera orain dela 10 urte izan zen, Mandik eta Potik bultzatuta. Gainera, Zumaiako surfeko lehen denda ireki zuten, "TAOSA" izen mitikoarekin. Baina azkenean hortxe geratu zen, saiakera batean, baina behintzat pausoa eman zen.

Orain dela 3 urte egin genuen txapelketa bat eta arrakasta handia eduki zuen, ez zen Zumaiako aurreengoa, baina bai herrikoiena. Hurrengo urtean

ere animatu ginen beste bat antolatzea eta hau ere oso ondo egon zen. Zumaian surfak eta bodyak zuen kirolari kopurua ikusiz eta zegoen zaletasuna, talde bat sortzeko idearekin hasi ginen pentsatzen, talde bat edukiz gero indar gehiago edukiko genuke; bai herri bertan gauzak lortzeko, bai Euskal Herriko mailan abantailak edukitzeko.

Horrelaxe lehengo urteko maiatzean erabaki genuen taldea sortzea, bilera batean estatutuak eta akta fundazionala bete genituen; 2 dokumentu hauek Eusko Jaurlaritzara bidali genituen eta han ofizialki talde bezela agertu ginen.




Mota guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERAOIA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Talde barruan bakoitzaren betebeharrak ondo zehaztuta daude: lehendakaria, lehendakari ordezkia, idazkaria, diruzaintzailea eta bokal bi. "Z.I.S.K.E." izenarekin sortu genuen: ZUMAIKO ITZURUN SURF KIROL ELKARTEA.

Taldea helburu batzuk bultzatzeko sortu genuen:

- Surfa eta body-boarda bultzatzeko.
- Gure ingurua zaintzeko.
- Herriko gazteen partaidetza laguntzeko; bai afizio bezala bai konpetizioetan.
- Instalazio egokiak lortu taldeko lanak egiteko: ofizina bat. Hondartzan materiala gordetzeko, erropaz aldatzeko eta duntatzeko lokala.

Ekitaldi batzuk nahi dira egin urtean zehar:

- Herri mailako txapelketa bat.
- Udararen surf eta bodyko ikastaroak.
- Bideo emanaldiak.
- Zumaiako surfistei txapelketa ofizialetan lagundu.

Txapelketak urtero egiten dira eta udako ikastaroak lehengo urtean hasi ziren ematen, partaidetza handiarekin. Aurten ere ikastaroak emango dira Itzurungo hondartzan; horretarako, tabla batzuk erosi dira, baita uretako traje batzuk ere. Bestalde, txiringito bat ere utziko digute Itzurungo aldan. Eta negurako orain komunak eta duntak dauden lekua izango dugu.

Hondartzan lokal bat edukitzea beharrezkoa da; euria egitean aldatzeko, arropa eta gauzak leku seguru batean gorde-



tzeko eta uretatik irteerakoan duntatzeko. Baita dirulaguntzak ere, txapelketak eta udarako ikastaroak antolatzeko. Orain arte Udaren laguntza eduki dugu baina beste diru sarrera batzuk ere izan beharko ditugu gauzak aurrera eramanez ahal izateko.

Taldeko bazkide bakoitzak 15 euroko kuota bat ordaintzen du urtero, taldeak bere ekintzak antola ditzan, bestela ere derrigorrezkoa da federaturik egotea E.H.S.F. an, horretarako adinaren arabera tasa desberdin bat ordaindu behar da.

Federaturik egoteak daukadan garrantzia azpimarratu nahi genuke:

- Kirol istripuen segurua.
- Beste norbaiti sortu daitezkeen kalteak.
- Surf txapelketetan parte hartzeko aukera.

- EHSFk beste erakunde batzuekin daukan akordioaren erabilpena.

- Aurten, surfa eskolako kirol bezala ezarri da.

Prestigen hondamendiari dagokionez, aurten bi egunetan irten gara gure kosta garbitzera, behin Natur Taldearekin eta beste bat gu bakarrik. Nahiko txapapote eta zikinkeria bildu eta jaso genuen. Egun hauetan txapapote pila heldu da gure hondartzara, baita inguruko kostara ere. Denon artean zaindu dezagun gure ingurunea eta hobeto biziko gara.

"NUNCA MAIS"

Espero dugu Zumaiako jendea kirol polit hau praktikatzeko animatzea eta orain praktikatzen dutenek uretan jarraitzea, federaturik noski.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIKO MOTOR

Santxo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA




San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

DIRA, DIRA, ZEZENAK DIRA...



Ospitalaren 25. urteurrena ospatzeko (1929an bukatu zen) zezen korrida antolatu zen Belmontena gogorarazteko. Zezen plaza "Casas Baratas" delakoak dauden lekuan jarri zuten, eta hasiera emateko aurrezkua egin zutela dirudi.

Zumaia Oroituz liburutik hartutako argazkia eta testua.



Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Bi aldiz toreatu zuen Juan Belmonte ospetsuak Zumaian, eta bietan zezenak harrapatu zuen. Zezenketa bat ospitala eraikitzeko dirua biltzeko antolatu zen 1925 inguruan, Zuloaga eta lagun talde baten zezenaletasunak bultzatuta. Toreroaren omenez eskaini zioten Juan santuari Zumaiaiko egoitza berria.

Zumaia Oroituz liburutik hartutako argazkia eta testua.

	AUTOS ZUMAIA
Urola plaza 3-5 Tel: 943 86 14 85	


<i>Julio beobide 3, tfno. 615 70 25 23</i>


I Z E T A
Urumea, 6 Tel. 943 862083


Juan Belmonte, 6

	taberna JUSTA
<u>eguneroko bazkariak</u>	
Erribera kalea, 20	

I Tunelaren bestaldean

a alferkeriak jo nau Maiatzaren Lehenean, baina azkenean zerbait egitea erabaki dut. Atzo uste baino gogorragoa joan zen parranda: jaiegun bezpera, santelmoetako martxa galdu nahi ez... Nolabait

atzokoaren ordaina eman nahi izan diot gorputzari, eta mendi-bueltatxo bat ematea erabaki dut. Zumaiaitik Debara joango naiz, eta gero trenez itzuli. Arropa egokiak jantzi, oinetako kuttunak lotu eta izerdia botatzera!

San Telmo kalean gora abiatu naiz, poliki, berotzen. Ermitaren parera iristean megafonia bidezko ahotsak iritsi zaizkit, Itzurun aldetik. Mekauenlamar, surfeko txapelketa da-eta! Bertara joateko tentatuta egon naiz, baina neure buruari gogor egin eta aurrera jarraitu dut. Arratsaldean ere hor egongo dira seguruen. Algorri aldera jaitsi eta Andikara bidean gora hasi naiz berehala. Hantxe azaldu zait Debara bitarteko kostaldea, garbi itxurako. Kendu ote dituzte Elorriaga aldean martxoan ikusi genituen orban izugarri haiek? Zenbat urte iraungo du arazo honek? Enfin... Lehen izerdi-ttamtak atera zaizkit errepidera iristerako. San Martin aldera doan bidegurutzetik emakume bat sartu da bidean. Hori da martxa daramana! Eutsi behar diot ba! Berrehun metroan terrenoa janez joan natzaio eta aldaparen goienean aurreratu ahal izan dut. "Sasoian natxiok, erredios!!".

Elorriagako etxeak igaro eta pinutegiak desagertuta, soildutako zelaia igaro ditut Arantzara bidean. Arantza Bekoa, hori bai toki magikoa, itsasorako begiratoki naturala, eta ez Ayra Durex atzean "egokitu" zaidan tasatutako etxebizitza "birtuala". Zenbat milioi balio ote du baserriak dagoen bezala egonda ere?

Sakonetatik gora martxa bixitzea erabaki dut, motorra pixka bat behartzea. Izerdia dariola iritsi naiz gora, beteta, baina



pozik. Gero trenbidea gurutzatu eta zalantza sortu zait: goitik joango naiz edota tunel zaharretik? Nahikoa aldapa igo dudala iritzita, altxerrian aurrera sartu naiz zuloan, ilunpetara. Ez dago putzu handirik eta beldur handirik gabe joan naiz tunelaren bestaldeko begira begira. Albo batean kable beltz handi batzuk antzeman ditut. Zerenak ote dira? Argindarra? Zuntz optikoa? Gora berrikuntza eta modernidadea!



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02





ZE LETUA

Berriz ere eguzkiaren bistan jarri naiz, haitz zuri handiaren parean. Gesalaren usaina airean, baratzean lan egiten duenik ere bada inguruan, ezker aldean tipulaz edo antzeko barazkiz betetako sail bat hortxe ikusi baitut. Baten batek gaurko egunez ere lan pixka bat egin, belar txarrak bildu eta su txiki batean erre ditu, errautsen azken ke usaintsuek adierazten dutenez. Beste tunel txiki bat igaro eta aurrera noala talde batekin gurutzatu naiz; ez dira zumaiaarrak. "Epa" egin diet diosala eta bizienak argi egin dit buruarekin kaso, "buenas" batekin lagunduta. Sartu naiz Itziarko araztegi aldera eramango nauen tunel luzean. Hezetasun handiagoa nabari da hemen. Errekaren gertutasunagatik ote? Urrutira, argiaren parean, norbait datorrela iruditut zait. Edo norbait doala? "Bahoa ala bahator?". Ez da argi ikusten, oraindik urruti dago-eta. Baletor ez doa oso bizi, nekez gerturatzen ari da, behintzat. Nire noranzko berean doala ikusi ahal izan dut, azkenean. Baina, zer da ezker aldean gorantz ateratzen zaion tramankulu hura? Urrutiei nago antzemateko. Bere pauso pausatuarekin eta forma horrekin estralurtar bat dirudi!! Zer da bizkarrean daukana, konkorra? Bizkar-zorroa eta ezker eskuan bastoi handi bat hartuta Santiagora bidean doan erromesa ote? Pausoa bizitu berriz ere eta tunelaren bestaldera iritsi baino metro batzuk lehenago jarri naiz pertsonaia ezezagunaren parean. 70 bat urteko agure maitagarria da, aitzur txiki bat ezkerrean, handik zintzilik

poltsa zahar batean baratzean jasotako zenbait barazki daramatzana. Belar txarrak sutan erre dituen, seguru asko.

- Egun on!
- Baizeuri're, halaxe do-ta!
- Gaurkoz nahikua in al deu?
- Baaaiiii, in deu eguneroko buelta. Itxasotikan al zatoz zu?
- Ez, Zumaitikan nator oinez.

Gero konturatu naiz nire malla beltzei begira zegoela eta seguruena neoprenozko galtzekin konfunditu dituela.

- Galtza moderno hoyekin errexo jute al da?
- Ez, ez. Hankai berdin-berdin erain bihar zake. Hori bai, izerdiya kanpoa ateatzen due ta hankak beti lehorrak eoteia. Bueno, aio!
- Bai, ondo jun, gazte!

Eta han joan naiz aurrera, nire draifit malla, gore-tex oinetako eta kul-max kamisetarekin, Urolako tren zaharra aurrerratu duen abiadura handiko trenaren gisa. Eta neure artean pentsatu dut presaka bizi garela azkenaldian; hori ez dela bizimodu sanoa; estresak edota depresioak jotzea nahi ez badugu, patxadaz hartu behar direla gauzak, unea bizi, ingurua gozatu. Eta horrela, pausoa mantsotu dut eta, gizartearen ur zikinak eta galipotak araztuko lituzkeen makina miragarria buruan, itsasoaren ondotik Debara abiatu naiz, berriz ere tunelak, baratzeak eta baserriak zeharkatuko dituen itzulerako trena hartzera, lasai-lasai.

Betty Pressacka

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Faxa: 943 861067
Estazioko kalea, 19

Antonio Etxabe



**Gizonezkoen
erropak**

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAYA • Tel. 943 861191



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAYA

Arrapatzen ba zaitut...

FRANK ABAGNALE Jr. iruzurtzaileak idatzitako "Atrapame si puedes" liburu erdi autobiografikoan oinarritutako filma da. Steven Spielberg-ek esan nahi diguna hau da: krimenak edo gaiztakeriak, batzuetan, ordaindu egiten direla.

Frank 16 urterekin dagoeneko iruzurtzaile bikaina dela kontatzen digu pelikulak. Ordurako, gainera, Estatu Batuetan oso ezaguna. Bere bizimodua Europara ere ekartzen du, beti ere FBIko agentea den Carl Hanratty atzetik duela.

Etiketarik egin ondoren, txekiak eta agiri ofizialak faltsifikatzeko duen abileziari esker biziraungo du. Abilezia horretaz gain, badu beste bat: maisua da bera ez den beste edozein pertsonena egiten. Horrela, sekula ere ez da susmagarria, eta gai da hegazkin pilotu batena egiteko, mediku lanetan hasteko, eta abar. Hori bai, beti ere primerako bizimodua eginda.



Atrapame si puedes
(Catch Me If You Can, AEB, 2002)

Zuzendaria: Steven Spielberg
Gidoia: Jeff Nathanson
Musika: John Williams
Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Tom Hanks, Christopher Walken, Jennifer Garner, Amy Adams, Martin Sheen

Abuztuak 18,
astelehena, 22:30ean Aita Mari zinean

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Herri txiki bateko komeriak

ROBERTO ROSELLINI maisuarekin batera, Federico Fellini handiak neorrealismoaren baitan ekin zion zineko ibilbideari. Fellinik "Amarcord" pelikula honekin gailurra jotzen du, eta askoren ustez, Europan sekula egin den filmik onena da.

Argumentu linealik gabeko pelikula hau Italian faxismoa nagusi zen garaian kokatzen da. Herri txiki batean. Bertako familia apal baten bizimodua hartzen du ardatz, eta nolabait esateko, Fellinik Rimini bere jaioterrian bizi izandako oroitzapenak dira.

Fellinik oroitzapen horiek modu lirikoan, eta barre egiteko moduan azaltzen ditu. Horretan asko laguntzen dio Nino Rota-ren musika bikainak.

Gertakariak bata bestearen atzetik gertatzen dira, eta herriko pertsonaia guztiek dute euren lekutxoak Fellini-ren filman: abokatu ilustratuak, estankotan lan egiten duen emakume titi handiak, emagalduek, turista arabiarrek...

Maitasuna, mina, sexua, poztasuna, ametsa... horiek denak azaltzen dira pelikulan.



Amarcord (Amarcord, Italia, 1974)

Zuzendaria:
Federico Fellini
Gidoia: Federico Fellini eta Tonino Guerra
Musika: Nino Rota
Aktoreak: Armando Brancia, Puppella Maggio, Magali Noel, Luigi Rossi.

Maiatzak 22,
osteguna, 22:15ean
(Emakumeen eguna)



AUTO-ESKOLA



ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

SANPEDRUAK 2003

27. OSTIRALA

19.00etan Udaletxean, Zumaia
Sariak 2003-saribanaketa.

20.00etan Odieta pelotalekuan,
San Pedrotako IX. Pala
Txapelketaren azken partiduak

22.30etan Aita Marin,
Euskaldunon Egunkariaren
Festa udal Euskara
Batordearen babesean

28. LARUNBATA , BEZPERA

9.00etatik 21.00etara: Uxategian,
Scalextric frogia, 12 orduko
iraupen frogia.

9.00etatik 13.00etara: Anade
elkartek antolatuta, Plater
Tiroketa frogia, Narrondoko
erriberetan.

11.00etan TXU-TXU trenaren
ibildak.

12.00etan Udaletxean,
TXUPINAZOA jaiei hasiera
emanaz

Jarraian, TOLOSAKO
DULTZAINEROAK arituko dira
kaleetan zehar

12.30etan plazan Jota emanaldia
VOCES NAVARRAS taldearekin.

16.00etan TXU-TXU Trenaren saio
berriak

17.00etan Udaletxe aurretik
Buruhaundi eta Erraldoien
kalejira Tolosako Dultzaineroek
lagunduta.

Ordu berean Aita Mari futbol
zelaian, "beterano" mailako
futbol partidua, Zumaia eta
Eibar taldeen artean.

18.30etan Gaztetxolan, uda
hasierako Jaialdia

Ordu berean HERRIKIROLAK
Eusebio Gurrutxaga plazan:
Arrospide, Larretxea, Elorriaga
eta Txapartegi aizkolariak, eta
Mieltxo Saralegi eta Zelai harri
jasotzen.

Eta SUGARRI txarangaren
kalejirak.

19.00etan Aita Mari zineman,
San Pedro Txiki eta Txikiak
eta Avilés-ko Coral Sto Tomás
Cantorbory haur abesbatzen
kontzertua

22.00etan Odieta pelotalekuan
zesta partiduak: XV. San Pedro
Sariaren azkenak.

23.00etan Eusebio Gurrutxaga
plazan GAUBELA taldearekin
dantzaldia

Ordu berean San Pedrotako
Tanborradaren hasiera

Gauerdian udaletxean, herriko
ikurrinaren igoera.

01.00etan Eusebio Gurrutxaga
plazan GAUBELA taldearen saio
berriak
eta SUGARRI txarangaren
doinuak kaleetan zehar.

29. IGANDEA ,
SAN PEDRO EGUNA

9.00etan Tolosako
Dultzaineroekin goiz soinua.

11.15etan AlkatesoinuaAlkate
Soinua Udal Musika
Bandarekin, eta Udalbatza eta
herritarrak prozesioan Parrokira
joango dira

11.30etan parrokian, Meza
Nagusia Parrokiko San Pedro
Abesbatzak abestua

11.30etan plazan, Gorriti eta bere
animaliekin, haur festa.

12.00etan Tolosako Dultzaineroen
kalejirak

Laja eta Iturbide Trikitilarien
doinuak kaleetan zehar

13.00etan Udal Musika Bandaren
kontzertua Eusebio Gurrutxaga
plazan

17.00etan DE TRAKA taldearekin
haur festa: tailerrak, kalejira eta
"Trikimailu Berria" haur berbena.

Ordu berean Alai auzategiko
zabalunean, Gipuzkoako
Txapelketaren barne, Ardi
Txakur Frogia.

17.30etan Odieta pelotalekuan,
profesional mailako eskuzko
pelota partidua:

Saralegi - Bengoetxea V
/ Retegi VI - Albizuri
Unanue - Errasti /
Olaizola I -
Otxandorena

18.30etan Tolosako
Dultzaineroen
kalejira

19.00etan PASAI txarangaren
ekitaldia

23.00etan Pirotecnia Zaragozana
etxearen eskutik, SU
ARTIFIZIALAK

Bukaera Tolosako
Dultzaineroekin kalejira
plazaraino

Bertan Zumaia Udal Musika
Bandaren dantzaldia

30. ASTELEHENA ,
SAN PEDRO BIGARRENA

9.00etan Goizsoinua Tolosako
Dultzaineroekin

11.00etan Haur Parke berezia
Eusebio Gurrutxaga plazan


12.30etan ALDATZ GORA
Fanfarrearen saioak
kaleetan zehar

16.00etan
Haur

Parkearen atek berriz zabalik
18.30etan Eusebio Gurrutxaga
plazan, BERTIZU taldearen
ekitaldia

18.30etan ALDATZ GORA
fanfarrearekin kalejira berriak

23.00etan TRIKI TA KE
taldearekin dantzaldia



OSASUN-ZIURTAGIRIAK GIDATZEKO ETA EHIZARAKO BAIMENAK LORTZEKO

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara

Aurretik ez dago txanda eskatu beharrik. Eraman beharrekoa: gidatzeko baimena eta argazki bat

Ipar Kalea 17, Behea, (Pagoeta Tabernaren ondoan) ZARAUTZ
Telefono zenbakia: 686 954 299

Zarauzko Udalak emandako Imanol Azkuere
"Gaur egun handia da"
liburuaren 5 aleak hauentzat izango dira:
- Ihintz Linazisoro
- Pili Etxabe
- Lore Esnal
- Maddi Etxabe
- Iker Alvarez
ZORIONAK GUZTIE!!!

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ELEKTRIZITATEA, S.L. TELEKOMUNIKAZIOAK
Erribera kalea 18 Behe Tel/Fax: 943 143097
20.750 Zumaia ekin@ekin.es.com

Instalazaila/banatzaila ofiziala

CANAL+ via
CANAL DIGITAL

Telefonos
Movistar
Telefonos
Movistar

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Dalac
COMPUTER

Maite
ileapaindegia

Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaia
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**
TAILERRA: Santxo auzoa 40



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak